



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: || IX Urtea || 1927'ko Garagañila || 102 Zenbakia || :—:

Zazpigaren eta amargaren aginduak

Non furtum facies. Non concupisces domum proximi tui (Exod. XX-15-17.)

Ez duzu ostuko.-Ez duzu lagun urkoaren etxerik naiko.



IZONAK izan lezaken izenik bezgafiene-takoa *lapuñaren* izena da. Baño bezgafia-go da naiz izen ori ez izan, izanez *lapur* izatea.

Ta onela dira lengoan ikusten gen-dun era guzi aietakoen batez, zazpigaren agindua austen dutenak.

Eta beroien antzeko dira, Jaungoikoa-ren begietan, amargaren agindua austen dutenak. Auek dira, bidegabekeria bes-

teren ondasunak berendako nai lituzketenak.

¿Zer debekatzen digu amargaren aginduak? Bidegabezko abe-rastu nàia debekatzen digu amargaren aginduak. (B. K. I.).

Bidegabekeria besteren ondasuna nai luken edozeñek bertatik austen du ba agindu au. Ta aberastu naiak maiz (safi) dakar gaitz au berekin.

Argatik zion Paulo Apostolu santuak: «aberastu nai dutenak erortzen dira zirikaldian (tentazioan) eta etsaiaren lakioan, eta naikeri uts eta kaltegarri askotan; auek ondatzen dute gizona eriotzan eta galbidean. Gaiztakeri (lapufeta) guzien zaña zikoizkeria baita. Eta batzuek naikeri oiekin siñismena galdu ere dute, eta naigabe gogofetan sartu dira».

Au adirazten digu Apostoluak, ezagutu dezagun ixilkako lapufeta guzien itufia, naikeri gaizto, amargarren agindua austen duten oietan dagoala.

Lapufetaren laritasuna.

Lapufeta, ostutzea edo ebastea, berez pekatu larria da. Argatik dio Paulo Apostolu santuak: «Ostutzaleak ez dutela Jaungoikoaren eregetza (zerua) iritxiko» (I-Cor. VI-10).

Lapufeta bakoitza larria edo arina dan ezagutzeko begitu hear zaio:

- a) Gauza ostuari; gauza larria edo balio aundikoa dan.
- b) Ostutzen zaionari; hear edo premi aundikoa dan.
- d) Lapufeta egiten dan garai eta lekuari.

Pekatu larfitako artzen da geienez, ostu zaionak eta bere etxe-koak egun batean bizitzeko naikoa luketena. Argatik eskale bati pe-zeta bat edo bi ostutzea pekatu larria da; eta langile bati eguneko irabazia kentzea berdin.

Pixkeka artuz edo askori ostuz egiten dan lapufetan pekatu larria izateko bestela baño geiago hear da:

Baño pekatu larria egiten da:

- 1.^a Asko ostutzeko asmotan ostutzen ba-da.
- 2.^a Naiz ez asmo ori izan, maiz (safir) ostutzen ba-da.
- 3.^a Edo ostuz kalte aundia egiten zaionean lagun urko edo projimoari.

Ostu eta kalte egiñaren ordainketa bearezkoa da.

Zuzentasunak eskatzen du ostua edo kalte emana ordaintzea. Argatik ostu dana itzuli al ba-diteke, lapufa bearturik dago, ostu duana bere jabeari itzultzeraz. Eta nork bere obenaz edo kulpaz besteri egin dion kaltea ordaintzera ere bai.


Egindako kaltea ordaintzera bearturik dago *egiaz, egitez eta naita* kaltea eman ba-dio lagun urkoari.

Egiaz kalte egiten du, jabe egiazkoari ondatzen ba-dio *bere* gauza artarako eskurik gabe.

Egitez kalte ematen dio, berak edo beragatik kaltea etortzeko bidea jartzen duanak. Nik su-emango ba-nio norbaiten etxeari edo nik agindu-ta edo eragin-eta bestek emango balio; baño ez ni etxe ar-

tan nagoalako nere etsai batek emango balio. Lenengo bi gertakizun oietan nik erantzun bearke nuke kalteaz; baño irugafenean ez ordea.

Naita kalte ematea da, ezaguturik kalte egiten diozula edo zuk



Jesukristok ogia bedeinkatu ta ugaltzen.

(Azambre)

egiten dezunaz kaltea etofí zaikiokela, ala ere, bidegabekerian kalte ori etortzeko bidea jartzen ba-dezu. Esate baterako, zuk zere soroko sasiari sua ematen diozu; baño ezagutzen dezu sasi artatik sua aldameneko esi lagunurkoarengana igaroko dala edo igaro ditekela? Orduan zuk erantzun bear dezu lagunari etofí zaion kalteaz; eta onela da beste gertakizunetan ere.

Zergatik gaude beartuak kalteak ordaintzera?

Kalteak ordaintzera beartuak gaude *Izatezko legeaz*. Onek agintzen bai-digu, guri egitea naiko gendukena, besteri ere egitea.

Jaungoikoak agintzen du bere Legean ere garbi. Gaizkileak.... ostua itzultzen ba-du... egiazko bizitza izango du. (Ezeq. XXXIII-13)

«Zesar'eri ordaindu, Zesar'ena dana» (Matth. XXII-21).

Eta ordaintzen ez duanaz auxe dio: «Lapufak ez dute zeruko eregetzarik (zerurik) iritxiko» (I Cor. VI-10).

Agustin Santuarekin Elizak esaten digu befiz: «Ezta barkatzen pekatuak, ez ba-da ordaintzen ostutakorik». Argatik da «ordainketa edo ondaketa» esanera.

Kristau efiak beste esanera bat ere ba-du: «Besteren ondasunak eztu aberastutzen; bizitzan ta iltzean eskua efitzen».

Efialde guzietako legeak beartzen dute lapufa edo ebaslea, ostua itzultzera.

Nori ordaindu bear zaio?

Ostutako gauza oraindik gordetzen ba-da, ta gauzak ez ba-du galdu, gauza bera ordaindu bear zaio al ba-da, ta bere jabeari.

Baño jabea ila ba-litz, aren ondorekoai bear zaie ordaindu. Jabea nor dan edo non dan ezin ikasi danean efaz samar, ordaña beartsuei eman bear zaie edo efukizko eginkizunetarako eman.

Jabe ez ezagunaren gauzak ordaindu ditezke baita ere Ordainketako bulda artu-ta, Españaren eskupeko lufetan.

Nola ordaindu bear da?

Nork bere eskuz edo Apezaren (konfesorearen) bidez edo beste norbaiten bidez, batere bere bururik agertu gabe ordaindu diteke.

Noiz ordaindu bear da?

Ordainketa edo itzulketa ori len-baño-len egin bear da.

Ordaindu litekena, besteren kaltearekin, luzaro idukitzen ba-da ordaindu gabe, pekatu lafia izan liteke ta eman zaizkion kalteak ere ordaintzera beartuko litzeke. Eriotz-ordurako ezta utzi bear ordaintzekorik; ortan pekatu lafia efaz izan liteke. Orduko utzi beafean arkituko ba-litz norbait, bere azken-naian edo testamentuan garbi jafi bear luke alakoari eman bear zaiona.

Batean ordaindu ezin dalako zor guzia, utzi al ditezke batere ordaindu gabe? Ez orixe. Zor aundia danean, askok ez dezakete batean zor guzia garbitu; ta batean ordaintzeko betari begira utziz geroz beren zofakin ilko lirake; baño dezaketena dezaketenean ordainduz, garaiez zor guzia garbitu egiten dute.

Besteren gauzarik ezin dezula artu jabeak nai gabe, gogoan iduki.

Besteri etzaiozula egin, bestek egitea naiko etzenduken kalterik.

Zerbait ostu ba-dezu edo kalterik egin ba-diozu, garbitu zure zofa, eriotz-ordurako utzi gabe.

«Zorionekoak zuzentasunaren gose-egafiz bizi diranak, aseak izango dira-ta» dio Jesus'ek.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.



Mixiolari Euskaldunak Kansu'rontz

(Jaiaipena)



IANFU'TIK ateragiñan egun artan *Wei ho* ibai gañeko zubia igarota. LOTAZILAREN 18'garen egunean Pinchow'ra eldu giñan. Apaldu ta lo mixio-etxean egin genduan.

Emengo mixiolaria apaiz txinafa da. Ez zegoan etxean. Inarkunak (ejerzizioak) egitera, mixio-etxe nagusira aspaldi juana omen zan, eta ez omen da geroztik beñiro itzuli, bideko lapur eta gaiztagiñen bildurez bere gotzayak uzten ez omen diolako; lapur eta gaiztagiñak alderdi ontan asko omen dabiltz-eta.

Emen jakin-erazi digute, guk etzi igaro bear gendukean efi batean, eñitafak 20 gudari il dituztela. Efi ortan, gudariak gaiztakeri ta lapurketa aundiak egiten omen zituzten. Azkenik eñitafak oñenbestez gogaitegin eta, gudarien aitzia (kontra) asaldatau omen dira, ta ogei il omen dituzte. Gudariak, efiko atear itxita, ez omen dute inor ateratzen eta sartzen uzten.

Gure itzayak gudariai bildur aundia diete. Izan ere ez da añitzekoa. Bidean iya egunero, ezin zenbatu (kontatu) ala arkitzen ditugu Kansu aldetik datozenak. Batzutan edozein utskeri batengatik asafetzen dira eta beren suiskilo edo fusilakin gure zaldiak joka asten dira. Bein gure itzai bat jo ere egin zuten.

Emen, Pinchow'n ere gure oyak lufean zabalduta lo egin izan bear genduan. Ander aítak eta nik lo egin bear genduan gelako bazter batean, egur, tipula zar eta zikinkeri tartean, xaguak zebiltzela iruditu zitzayan. Gabez nere oyera etofiko ote ziran bildur nintzan, eta ala gertatu zan.

Bat nere esku ta buru aldean zebilela esnatu nintzan. Befiz, geroxego, nere anka tartean zirkin egiten zuan zerbaitek esnatu ninduan. Berealaxe

xaguaz oroitu nintzan, eta lafi nere anakak eta estalkiak astindu nituan; eta an juañ zan xagua zalapartaka egur tartera.

Ufengo egunean, mixio elizan denok meza eman genduan; eguardia arte, *King ho* ibayaren ondoan, zelai zelayean ibili giñan.



Bi adiskide (Txina'n)

LOTAZIĀ 20.

Goizean goizea abiatu gera-na, ta geyen ibili geran eguna gaurkoaizanda. Goizeko lau etarako gure gurditan giñan, eta 73 edo 76 kilometro egin genituan.

Gure bidea apur bat okertuta, 20 guda-riak il zituzten efiaren ondotik goizean ilunpetan igaro gera. Zortzi eta erditarako, Kansu'ko probintzian sartuak giñan.

Kansu'n ibili geran lenengo egunean, esku azpia baño zelayagoko zelai zabal-zabal kan ibili gera.

Zeru ozkarbian, laño izpirik ere ez zan ageri egun guztian. Lufa elufez zuri-zuri, eta dena izoztuta. Eguzki dago baño ikaragafizko otza; egun guztian izoztutzen ari da. Gurdi bañuan nagolarik ere, arnas-lufina izoztuta, nere bizafak zufundu ta zuri-zuritu egin zaizkit. Nere maleta gurdi bañuan daramat, eta goizean legortzeko erabili detan eskuoiala maleta bañuan egon afen, dena izotzez gogor-gogor egin da.

«Nun ditugu Kansu'ko mendiak?», esaten zidan lagun batek, «emen ez zaigu mendi asko ageri». Atsaldean, iru ta erdiak aldean, aldapa bera asi giñanean, oartu giñan, erderaz *meseta* esaten dan, mendi-gañeko zelai garayean ibili giñala egun guztian.

¡Ura aldapa! Sianfu ondorengo, *Wei ho* ibai gañeko zubia, eta aldapa au izan dira bide guztian geyena ikaratu nauten tokiak.

Aldapa ontan bereziki, oso gaizki ibili ziran gure itzayak. Izoztuta oso laban zegoan. Aldapa aundia zan gero, ta oso luzea. Zaldiak, befiz, ifistaka zutik ezin ziran egon. Gu oñez (beti oñez ez, batzutan lufean etzanda) jextxi giñan. Seyak alderako *Kingchow*'ra eldu giñan. Gabeko bederatzitan, gurdi batzuk oraindikan mendian omen ziran; ez dakit noiz etofi izan ziran *Kingchow*'ra.

Kingchow'ra etortzeko gogoa ba-geneukan, gure mixioko mixio-etxea ta mixiolaria lenengoz emen ikusi bear bai genituan.

Emengo mixiolari onek, Aita Walter du izena. Berak ere oso pozik artu ginduan, musuka ta laztanka. Oso umore oneko ta paferagilea da. Berak egindako idaztia, «*Ins blumige Reich der Mitte. Tagebuchblätter des China-Missionars P. Walter*», irakurtzen duanak, ezagutuko du nolakoa dan mixiolari au. Gu onera etofi giñanez geroz, egun batean edo geyagotan, dena gudariz beteta euki bear izan du bere mixio-etxea; oso pozik omen zegoan, palangana bat besterik izan ez zalako, bere gauzetatik, gudariakin jua nai izan zuanik.

Kingchow'n egun bat osoa egon giñan. 22'garen egun guztian *King ho* ibayaren ondoan ibili giñan. Eguerdian, gure mixiolarietako beste batekin izketan egon giñan, Aita Adalar tiroldefarekin. Bera ta bere mofoya, zaldiz zebiltzan; *Kingchow* aldera zijoazela uste det.

(Jaraitzeko.)

P. GREGORIUS O. M. CAP.
Miss. Ap.




Gure Misiolariak Txina'n.

Eskui aldean A. Gregorio (zaldiz) ta A. Andres (oñez)



Jauna det nik Artzai

1) Jauna det nik Ar-tzai, Ark nau begi-ra-tzen; La-fe go-zo-e-
— ra Jo-an-a-raz-ten nau; Biz kor-tu nau o-



tan Ja-fi nau baz-ka-tzen
so Ma-kal nen-go-en

1
2) Ur otz garbi-ta-

2 1) Ba-sa-tu ez na-
au.



din Bi-de zu-ze-ne-tik, Berak zu-zen-tzen nau Be rei-ze na-ga-
—tan Naiz i-bi-ñi na-din, Ez nai-te-ke bil-dur, Zu zai-tut ne-re-



tik. 1 2
2) Toki iun bel-tze- kin.

Denak

1) Mai bat ja-fi de-

Zu - re artzai-ixankak Zai-tzen nau ta alai-tzen.

pp *mf*

zu Ne-re ai-tzi-ne - an Ni gal-du nai nau - ten E-tsai-en au-fe-
 — oz l-gor-tzi di-da - zu Ne-re edan-on-tzi - a Bai da-la go-za-

an. 1 2 1) E-gu-nez ta gau- ez Bi-zi nai-zen ar-
2) Bu-ru - a o - li - tsu! — de Ge-ro naiz bi-zi-

Biziro


te Zu-re ufikal-me-na Nere-kin dabil - ke.
 ko, jau-na-ren etxean Egun ta be - ti-

1 2
 2) O-ri da-la bi- ko.

geld. *pp*



ILETA-ERESIA



la negafez igotzen nintzan
kanposantura lenago:
orain, bilera txoroak baño,
kanposantua naiago!

Bakañdadea orain naiago
dantza ta izkanbila baño:
argatik pozez afatsaldero
noa kanposanturano.

Ba-dakit orain nola ari ilekin
ixil-ixilik izketan:
ofa zergatik gizonagoa
len baño naizen denetan.

Adiskideak...! Ez egin negaf
iltzen naizen egunean:
ezergatik negaf, gau gaitza jun-da
euzkia piztu danean?

Biotzez ta aoz otoitz beroak
egan bidali Zerura...
T'esan: Gaur il da Euskal-Efiko
olerkari gaxo ura.

Adiskideak...! Ez egin negaf
nere ilobi baztefean:
exeri t'egon ixil-ixilik
nekin izketa luzean.

Afizko gurutz aundi bat baizik
ez nere gañean jafi;
eta lorerik zeren eskutan
aruntz netzat ez ekafi.


Bañan, ez kendu gurutz-alboan
jaioko dan untzofia,
ta ez uxatu gurutz-gañean
kantari dagon txoria...

.

Nere ilobiko gurutz
afizkoa,
esnatu-afte zaindu
nere loa.

Jauregi'tar Luis.

Ilabete onen amairuan, S. Antonio egunean meza bat
emango da ZERUKO ARGIAREN irakurle ta ongilen al-
:— :— de, Antonio Santuaren aldarean. :— :—



Pedro Mari Amerikanoa.

(Jaraipena)



MERIKANOAREN afotasuna gizontzen ari zan gero ta geiago efitafen arteko aomenaz. Erabaki zuen, ba, efitxo artan bere kabia jartzea, naiz len lruña'ra ilabete batzuen buruko joateko gogoa erakutsi, efitafen artean asnasea artzeko, estu arkitzen za'ako. Iruditu zitzaion nunbait jauregiko mutil baño ikazkin nagusi izan obe dala, ta basefitar aien artean ago-zulora begika zeuzkanak eta bere aldekoen bat ere ba-zuan ezkerro, etzan ostatuko erakus-toki ustekabekoa aipamen aundikoa egin arte utzi bear.

Joxe Anton'ek ikasi zuen garbi-garbi zer neufiko jakintsua zan Pedro Mari. Etzuan gau asko gal-tu beafik *pilosopia* ikasten, Amerikanoak bere jardunketa guzietan zerabilzkin kirtenkeriak ezeztutzeko; Barzelona ta Buenos Aires'ko befi dakarten irakurgai batzuen ikustea naikoa izan zuan txolarte batzuetan; Amerikanoari aietan berak ikusiak laguntzen zion ezkerro bere betikoa ardala befitzean.

Bernardo Jaunak eta Joxe Anton'ek beren jolasaldi egin zuten ufengo igande argitu zuan. Eguzkia bere su-gar biziaz jar-tzirik agertu zan sortaldetik. Odeitorik ere etzan ozkarbia gandutzeko. Aide beratx loxintxariak limizkatzen zuan zelaia, ostorik dardarazi edo loreai ufiñik ostu gabe. Ba-zirudin ezkilak ots sendogoaz deitzen zuala mezara ta bi agure zarbofatuak ere udabefiko eguraldi gozoak eraginik joan ziran. Iru uts bakafik izan ziran: Pedro Mari, ostalari ta kofeo

mutilarena. Pedro Mari Iruña'rako bide berira atera zan eguzkia artzera, ori gora zijoaia, Apaiza gizon sail batekin elizatarian orduaren begira izketan zegoen artean. Eliz-atari aufetik garaile baten antzean igaro zan, agur egin ere gabe. Ostalaria ta kofeo-mutla etxean egon ziran, etzuten kopetarik erlijio gabe agertzeko-ta.

Afatsaldean lagun ezagun oietaz inguraturik zegoan Pedro Mari. Aiek beti bezala afiturik entzuten zioten. Buenos Aires'ko kaian sartu zenean, ze ikusgarfia izan zuan esaten zien. Ainbeste ta ainbeste itxas-ontzi urak gora-bera zerabilzkia-nak Espānako ontziari ondo-etofia ematen ari zirala ematen zuela; ekea zerioten



Urbasa-mendian.—Zur-lanetan.

(Intzar L'ren arg.)

ango tximini pilak baso itxi-itxia ematen zuala; ontziak ustutzen eta betetzen an zebiltzen makina ikaragarfiak eta ango saferako gurdi efenka azken gabeak-eta. Ontan afiturik gelditu ziran berengana urbildu zitzairen lagun berri ta oieza batez: Joxe Anton zan.

Oso gozoro diosala egin zien ango guziei ta lagunartean sartu zan. aufetik edontzi bat ardo ostalariari eskatuz, ofela obeki estaltzeagatik leku artara zeraman asmoa, leku ura etzan oso egokia, aren antzean Apaiz izan nai zuan batendakota. Ortan gelditua zan Apaizarekin, Amerikanoak etzezan ezagutu afen asmorik eta beraren bildufez, erantzulea ikusi-ta etzedin gelditu bestetan bezalako itzontzikerian erlijioaren kaltezko iritziak azaldu gabe.

(Jaraituko zaito)

Legate'ko-Artzaia

LEIRE



EIRE arkaitz eta anaitegi (1) bat da: arkaitz edo malkor pikoa, afitsua, zugatz gutxi duena; anaitegi guztiz antziñakoa, aurki Napafoan dan zafena. Arkaitza Nabazkotze'koaren luzapen bat da, eta afen baztar batean, Aragon'go muga'n egon zan Leire.

—Egon zala?—Bai, ez deiteke esan dagonik-eta. Egon zan, gaur dagon ori ondamen pila besterik ez da-ta; lufera datozen ormak, lufean ari ta adri-lu ugari. Ango Anaïen abestien ordezt, ontzaren oyua ta txori-afapazaïearen kafaxia besterik ezta an entzuten. Leire, ilik datza.

Leire'ra joatea efaz da. Zangoza'tik Yesa'ra bada tafanta eta gero iru ordu laurdeneko bide ibili ditekena; joan gaitezke izpiliko ta elar ufin gozoa artuz. An-emen ikusi ziñezakete, zuei goitik-bera begitzen diuzen artean, zakufa ixilazten duen artzaien bat. Ez dezute beste iñor ikusiko. Eta atzoko ta gaurko edo lenengo ta oraingo biztanleen ikasmiñeko gogoraldietan zabilatzaten bidenabar, urbil dauzkatzuten arkaitz gero ta latzago ta azkafago ematen dutenai; angio arte, aritz, ezel eta elofi gero ta ugariago ta sendoago agiri zaizkitzuenai; eta goitik bera txixfixtan eta marmarka datofen ur-ariari begika urbiltzen zerate, zelai batean dagon anaitegi ikaragafiaren ondora.

Naiz eguraldi gozatsua egon, ezta afitzekoa izango otz-antza egiten ba-zai-zute: babesera. Auean daukazuen zelai sakona ta mendi oiek Aragon'goak dira. Beiko lafatzean nafazka dijoan ibai (ubaldeak) Aragon du izena. Zuen ezker muñotxo ortan agiri dan eña, Tiermas da. Aruntzago, ibai ostean dagoana befiz, Ruesta. Napafo'tik mendiak besterik ez dira agiri.

Ufuti samafetik eta lenengo begiraldian iruditut zaizute anaitegiak ez duela eunurte edo mende ondalarit oien bildufik.

Ango gorape, eskaratz, batzartegi, bizitza ta lantegiak ikustera bazoaz, ausin tarteaz, muskafak izutuz eta ondar pilen gañetik igaroaz, orduntxe esangozu: «Zein tarte aundia dagoan, lendabiziko ematen zuanetik egiz dagoanera». Oraindik òngi edo alola gelditzen dan zerbaït baldin ba-dago ere, ez uste izan befiro Monje edo Praïlerik an luzaro bizitzera etofiko danik.

Irakurle ori, oar zaitez bidenabafean, Leire'n zuti gelditzen dana an zen zafena dala: Eliz-pea ta eliz-sabaia; elizeko peñantzean (2) egiñik dauden zatiak eta eguzkiaren sartaldeko ta eguteraldeko ateak eta abelartearen pusketa zirian-

(1) Anaitegi = monasterio.

(2) Peñantzean deitzen degu *Estilo románico* deitzen dutena. Era ontan egiten ziran XI, XII, XIII-gaŕen mendearen aldi batean. Afen ondotik etofi zan *ziriantzekoa* edo *gótico* edo *oïbal* erdaraz deitzen dana.

tzean (1) bukatzen dana; erti-zaleak ikusi nai duana; ertilarien eskua agertzen diguna.

Leire'ren soferaz ezta kigu ezertxo ere. Cordoba'ko Euliojo santuak, 842'an ura ikusirik, asko goratzen duen itzak dizkio beraz.

Iruña'ko Gotzai edo Obispo jaun batzuek, andixe atera ziran gero. E'regen



Leire (Atzeko aldea)

batzuek antxe daukate ilobia. Napaño'ko Apaizak eta aundizkiak batzafetarako zuten toki ori, orduko gertaeratan geiena esan nahi zuan lekua zan. «Napañoaren buru ta biotza» deitu izan zuan Santxo Sendoak.

Lufeko gora-beraetan zeukan eginkizun aundiak eta bere aberastasun ugariak ekafi zuten ara beren legetako lasai-bidea. 1236'ean sartu zan estufasuna, Zister'iafakin. Auen lenengo Nagusia Mendabia'r Domingo izan zan.

Kluni'iafak 1270-ga'en urtean iritxi zuten Leire'n indafez sartzea ta 1273'araño an irautea; baño X-ga'en Gregorio Aita Santuaren aginduz eta Enrike Efegearen laguntzarekin Praile txuriak beñiro jabetu ziran artaz. Praile beltzak beñiz ere itzultzeko ekinaldi asko egin ondoren, azkenean agindu zitzaizen ixilik uzteko itzultzeko asmo ori.


Erti-lanaz zerbait aipatu bea'a gelditzen zaigu.

(Ja'raituko zaio)

M'ar F. A.

(1) Ziriantzean = ojival.





Rendones



Bidaur

Ori da Garizuma ondo gordetzea.

LIKA, Italia'ko uriak gauza edefa ikusi du joan dan Garizuman. Saboya'ko Filiberto Prinzipea joan za-ye, efi ikusi naian ta jakiña da, afera txit ona egin zioten ta jai aundiak geftu edo prestatu ere bai, egun onak igaro zitzen.

Oyetako egun batean afaria bukatu ondorean, esan zioten nola antolatu zuten teatroan ere jai aundi bat berarentzat. «Ez, erantzun zien Filiberto'k, Garizuman ni ez noa ez teatrorra, ez dantzara.»

Befi au bereala zabaldu zan efi guzian ta esana dago nola goratu ta txalotuko zuten ofen ikasbide edo ejemplo edefa.

Ori da Garizumari ondo begiratzea.

Peyramale, Lourdes'ko apaiza izan zanari.

Datofen agofaren 8'an, 50 urteko egingo ditu Peyramale apaiza il zala. Lourdes'ko bikarioa zan, Ama Birjiña ageftu zanean; onegatik bere izena, Bernardatxorena bezala oso ezagutua egin zan.

Elizak bere iritzia eman zuenean, Lourdes'en gertatu ziran gauzetan, Peyramale izan zan langile bikaiñ ta sutuena, Ama Birjiñak nai zuan eliza jasotzeko.

Bere izena iñoiz galdu eztedin, Lourdes'ko ayuntamentuak erabaki du bere irudia (estatua) bere gorputza dagon eliz-aufean ipintzea ta ortarako eman ditu 10.000 franko.

Katolikoak eman nai duten dirua biltzeko, batzar bat aukeratu dute, Lourdes'ko obispoa buru duena.

Ez kendu umeai gurutzea!

Luxemburgo'ko efi batean ayuntamentuak, sozialista zala ta besterik gabe, erabaki zuan ikastetxe edo eskoletatik gurutzea kentzea.

Irakasle edo maisuak etzuten ofelako agindua bete izan nai. Aisialde batean ordea sartu zan diputadu bat eskola batean ta gurutzea eraman zuan.

Bereala zabaldu zan gertaera au Luxemburgo bafena.

Diputadu batzar edo kongresoan bufuka bizia izan zuten katolikoak ta so-

zialistak gertaera onegatik ta azkenean 31 atera ziran gurutzearen alde ta 8 bere kontra.

Sendagiñeak mixiotara.

Egun oyetan atera da Budapest uritik sendagile bat, mixiolari katolikoai beren lanetan laguntzera. Afrika'ra joan da ta au da Ungria'tik dijoan lenbizikoa.

Bere efiari agur esan zion azken egunean, jai aundia egin zan jesuiten etxean ta Aita Santuaren Ordezkoak artu zion mixiotara joateko egiten zuan eskeintza.

Emendik aufera urtean lau edo bost joango omen dira Ungria'tik mixiotara, orain Afrika'ra, gero Txina'ra.

Japondafak Brasil'era.

Brasil'go gobernuak japondafai bere ateak iriki dizkientik, asko joan dira ara. Jari omen dira orain arte bizitzen 50.000.

Japondar oyeek, iya guziak, ez dute egiazko Jaungoikoa ezagutzen, ala ere ez omen dituzte begi txafez ikusten katolikoak ta beren gauzak. Gero ere ez da ofen zaila izango of Brasil'en japondar oyeek gure Elizara ekaftzea beren gezufezko jainkoak Japon'en utzi dituztenetik.

Elizak au ikusi duelako, asi dira Brasil'era joaten japondafakin batean, beren izkuntza dakiten mixiolari katolikoak.

Ejipto'ko efegea ta Aita Santuaren Ordezkoa.

Ejipto'ko efegeak artu du bere jauregian Aita Santuak Ejipto ta Arabiara'ko izendatu duan Ordezkoa.

Efegeak esan dio nolako atsegiñaz ikusi duan beti orain arte Ejipto'n egin duan lana ta zoriona eman dio aita Santuak bere Ordezkoa egin dualako.

Ufengo egunean efegeak biali zion bere afgazkia (retrato) bere eskuaz izena bertan jafirik, Aita Santuaren Ordezkoarentzat egin dan etxe befian ipiñi dezan.

Aita Santua ta Irugafendafak.

Onela itz egin zien Aita Santuak Kanada'tik etofitako Irugafendafai:

«Zuek zuen Aita esaten didazute ta nik, zuen Aita naizelako, oso pozik bedeinkatzen zaituztet; ala beraz zuen anaia naiz Prantzisko Deunagan ta onegatik atsegin aundiaz deitzen zaituztet nere anaia. Gazte nintzanean, Irugafen Ordenan sartu nintzan ta egia esan bear badet, au izan da nere bizitzan atsegin audienetakoal»

«¿Zenbat zerate Kanada'n?» galdetu zien Aita Santuak. «Iya 100.000,» erantzun zion Irugafendafen buruak.

«Asko zerate, esan zien Aita Santuak; ala ere sayatu zaitzete gero ta geyago biltzen ta gañera guziak egiazko Irugafendafak izaten!!»

IĻEN SAILA

—Ugarte-Amezketan il da Frantziska Zubeldia, gure aldizkari onen arpideduna.

—Joan den Azaroaren 26'an il zan Oyartzun'en Pedro Mitxelena, «Zeruko Argia»ren arpideduna.

Il oien etxeko ta aideai gure atsekabea erakusten diegu eta gure irakurleai otoitz bana eskatzen diegu.